

2002tik, urteko 373 milioi eurotik gora ordaindu ditu interesetan

EROSKI-K 13 MILIOI EUROREN INTERESAK ORDAINDU DIZKIE MENDEKO EKARPEN ETA OBLIGAZIOETAN INBERTITU DUTENEI

- Gaur (hilak 31) ordainduko zaie MFE Mendeko Finantza Ekarpenei jabeei, eta otsailaren 1ean, berriz, Mendeko Obligazioen jabeei
- 2002an MFEetan inbertitu zuenak bere inbertsioaren %79 jaso du interesetan, eta %88, Mendeko Obligazioekin trukatu bazuen
- Aurtengo urteko interesak %2,891ean gelditu dira finkatuta 2002an eta 2004an jaulkitako MFEetarako eta Mendeko Obligazioetarako, eta %2,391ean 2007ko jaulkipenerako

Elorrio, 2019ko urtarrilaren 31.- [EROSKI](#)k bihar abonatuko ditu, hilaren 31n, Mendeko Finantza Ekarpenei dagozkien urteko interesak, %2,80ko tasan 2002ko eta 2004ko jaulkipenentarako, eta %2,30etan 2007korako. Bihar, otsailak 1, EROSKIk Mendeko Obligazioen urteko interesak abonatuko ditu, %2,80ko tasan. Guztira, 13 milioi euro abonatuko dizkie EROSKIk interesetan inbertsio tituluak dituztenei.

EROSKIk bere burua indartzeko MFEen lehen jaulkipena egin zuenetik (2002an), kooperatibak zuzen ordaindu dizkie urteko interesak inbertsiogileei; dagoeneko, 373,7 milioi euro guztira. MFEak eta Mendeko Obligazioak ordaintzeko, zeina ez baita kooperatibaren emaitza ekonomikoen arabera, erreferentzia gisa Euriborra gehi hiru puntu hartzen du MFEen 2002ko eta 2004ko jaulkipenentarako eta Mendeko Obligazioetarako eta %2,5eko diferentziala MFEen 2007ko jaulkipenerako.

Abonu horren bitartez, MFEa 2002an hartu zuen inbertsiogile batek dagoeneko hasierako inbertsioaren %79 jaso du interesetan, eta %88 orain urte bat iraungitzen diren Mendeko Obligazioen trukea egin bazuen. MFEen 2004ko inbertsiogile batek, berriz, %67 hartu du dagoeneko interesetan, eta, trukea egin bazuen, %76; eta 2007ko batek bere inbertsioaren %44 jaso du, edo %52, trukea egin bazuen.

2019. urterako, interes tasa %2,891ean geldituko da (-%0,109 + %3ko diferentziala) MFEen 2002ko eta 2004ko jaulkipenentarako eta Mendeko

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



Obligazioetarako, eta %2,391ean (-%0,109 + %2,5eko diferentziala) 2007korako, eta guztiak abonatuko dira datorren urtean.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)